

## **2018KO MAIATZAREN 17AN BATZARRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-**

Adunako udaletxearen Kultur aretoan egin du bilera 2018ko maiatzaren 17an, 18:35tan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

### **BERTARATUAK:**

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua  
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Aguirrezabala  
ALTZOKO UDALA (%0,65): Josu Astrain Azkona  
AMEZKETAKO UDALA (%1,58): Iñaki Amundarain Tolosa  
ANOETAKO UDALA (%3,09): Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa  
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala Ezkurdia  
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasketa  
LEABURU-TXARAMAKO UDALA (%0,61): Itziar Zubelzu Urbieta  
LIZARTZAKO UDALA (%1,05): Leyre Gordo Castro  
OREXAKO UDALA (%0,20): Eneko Maioz Ganboa

### **ETORRI EZ DIRENAK:**

ABALTZISKETAKO UDALA (%0,54): Kepa Gorostidi Garmendia  
ALBIZTURKO UDALA (%0,53): Carlos Ugartemendia Leunda  
BALIARRANGO UDALA (%0,21): Martzelino Dorronsoro Galarraga  
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42): Silvia Moneo Cid  
ELDUAINGO UDALA (%0,39): Miren Amaia Askasibar Agirre  
HERNIALDEKO UDALA (%0,57): Miren Karmele Pellejero Galarraga  
VILLABONAKO UDALA (%9,61): Eneko Urdangarin Eizagirre  
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

### **GAI ZERRENDA**

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2018ko urtarrilaren 17ko Batzarraren Akta onartzea.**
- 2. 2018ko otsailaren 21eko Batzarraren Akta onartzea.**
- 3. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20180220.004tik LE20180425.14ra.**
- 4. 2018ko urtarrilaren 17an Tolosaldeko Mankomunitatearentzat Idazkari-Kontuhartzaile plaza sortzeko hasitako prozedurari uko egitea.**
- 5. Idazkari-Kontuhartzaile lanpostuaren sorrerarako Tolosako Hiltegi Mankomunitatearekin Udal Elkartea sortzeko hasiera emateko onespenezko proposamena.**
- 6. Galde-erreguak.**



Mankomunitatearen Idazkari den Leire Arteaga Zumetak eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Alkiza, Andoain, Asteasu, Berastegi, Berrobi, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Orendain eta Tolosako ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutueta 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ALKIZAKO UDALA: Ordezkaria, Aritz Sarria Sarasketa (Larraul)

ANDOAINGO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ASTEASUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

BERASTEGIKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

BERROBIKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

GAZTELUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

IKAZTEGIETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

IRURAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ORENDAINGO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

TOLOSAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

### **1. 2018ko urtarrilaren 17ko Batzarraren Akta onartzea.**

Izenburuan erlazionatutako akta ahobatez onartu da.

### **2. 2018ko otsailaren 21eko Batzarraren Akta onartzea.**

Izenburuan erlazionatutako akta ahobatez onartu da.

### **3. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20180220.004tik LE20180425.014ra.**

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

LE20180220.004

LE20180220.005

LE20180220.006

LE20180220.007

LE20180222.008

LE20180226.009

LE20180228.010  
LE20180322.011  
LE20180327.012  
LE20180418.013  
LE20180425.014

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

#### **4. 2018ko urtarrilaren 17an Tolosaldeko Mankomunitatearentzat Idazkari-Kontuhartzaile plaza sortzeko hasitako prozedurari uko egitea.**

Idazkariak azaldu du pasa den urtarrileko Batzarrean onartu zen Idazkari-Kontuhartzaile plaza sortzeko prozedurari hasiera eman zitzaiola, Eusko Jaurlaritzari eskatuz lanpostua sortzeko eta sailkatzeko. Honen ondoren, Tolosako Hiltegi Mankomunitatearen eskaera jaso zen, postu honen gabezia azalduz eta Tolosaldeko Mankomunitateari proposatuz bien arteko udal elkartearen eratzeari, Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua partekatuz.

Beraz, Batzarrak, ahobatez,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** 2018ko urtarrilaren 17an Tolosaldeko Mankomunitatearentzat Idazkari-Kontuhartzaile plaza sortzeko hasitako prozedurari uko egitea.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau Eusko Jaurlaritzari jakinaraztea.

#### **5. Idazkari-Kontuhartzaile lanpostuaren sorrerarako Tolosako Hiltegi Mankomunitatearekin Udal Elkartearen sortzeko hasiera emateko onespenezko proposamena.**

Idazkariak azaldu duenez, Tolosako Hiltegi Mankomunitatea Tolosaldeko Mankomunitatearengana zuzendu da, Idazkari-Kontuhartzaile lanpostuaren beharra jakinaraziz eta bi erakundearen artean Udal Elkartearen sortzeko proposamenarekin, lanpostu hori elkarbanatzeko. Hiltegiak jakinarazi duenez, lanpostuaren jardueraren %15ean finkatu du berarentzat.

Ikusirik Tolosaldeko Mankomunitatearen ezaugarriak, eta aurrekontuaren zati gehiena kontratu bakar batek eramaten duela, hondakinen bilketa eta garraio zerbitzuaren, Eusko Jaurlaritzari eskatuko zaio Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua sortzea izango dela egokiena eraginkortasun eta efizientzia printzipioei jarraituz.

Dokumentazio guztia aztertu ondoren, Batzarrak, ahobatez,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Idazkari-Kontuhartzaile lanpostuaren sorrerarako, Tolosako Hiltegi Mankomunitatearekin Udal Elkartearen sortzeko prozedurari hasiera ematea.

**BIGARRENA.-** Udal Elkarte honetan, Tolosaldeko Mankomunitatearentzat aipatutako lanpostuaren jardura %85a izatea.

**HIRUGARRENA.-** Udal Elkartearen sortzeko prozedura aurrera eramateko, dagokion Batzordeko bi kide izendatzea, Tolosaldeko Mankomunitatearen aldetik: Josu Amilibia Lehendakaria eta Patxi Amantegi Lehendakariordea.

**LAUGARRENA.-** Eusko Jaurlaritzari eskatzea Udal Elkartearentzat gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioaren funtzionarioentzat gordetako Idazkari-Kontuhartzailearen lanpostua sortzeko eta sailkatzeko.

**BOSTGARRENA.-** Erabaki hau Tolosako Hiltegi Mankomunitateari eta Eusko Jaurlaritzari jakinaraztea.

### **6. Galde-erreguak.**

Ez dago.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko seiak eta berrogei direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

**LEHENDAKARIA**

**IDAZKARIA**